

Laudion, 2025eko irailaren 2an

Jai giroa eta elkartasuna 2025eko Sanrokeetan

Aurtengo Sanroke jaietan euskara lehenetsi da, bai eta jai-giroa bermatu da ere, nahiz eta eguraldi txarrak eta antolakuntza beharren ondorioz eratorritako kokapen aldaketak

Bederatzi eguneko jaien ostean, non giro paregabea nagusitu den eta errespetutik eta bizikidetzatik gozatzeko gogo nabarmendu den, audioarrek aurtengo Sanroke jaiari agur esan diote; Udal gobernu taldearen lehen balorazio arrakastatsu batekin. *"Aurtengo Sanroke jaiak udako egun beroenetako batean abiatu genituen, eta lehen momentutik nabari izan da gure kaleak biziberritu dituen algara, gozamena eta elkartasuna. Jaiak tradizioz eta ospakizunez beterik bizi ditugu, baina baita gure herriaren konpromiso sozial eta kolektiboa agerian uzteko ere. Lehen egunetik, Palestinari babesa adierazi diogu, gure inguruko kezkak plazaratu ditugu eta tinko erakutsi dugu Audio ez dela erasoen aurrean isilik geratuko"*, adierazi du Sonia Respaldiza Jaietako zinegotziak.

Aurten ere Audioren bihotzaren taupadak euskaraz direla argi geratu da, egunero euskara lehenetsi baita jai ekintzetan, eta kaleetan aniztasuna arnastu da; belaunaldi desberdinek espazioak elkarbanatu dituzte, eta dantzak eta musikak etenik gabe lagundu dute giroa diseinatutako ekitaldi ezberdinetan, 160 baino gehiago. *"Jai parekide, euskaldun eta edonorren gozamenerako sortuak"*,

goraipatu du zinegotziak.

Aurten, eguraldi txarraren ondorioz eta antolakuntzaren beharretatik eratorrita, kokapen aldaketak egin behar izan dira, betiere jai-giroa bermatuz. Antzerkiak, dantzaldiak, jokoak, kalejirak, buruhandiak eta erraldoiak, kontzertuak eta bestelako ekitaldiak herri osoaren parte-hartzearekin gauzatu dira. Gauzak horrela, Udal gobernu taldeak eskerrik beroenak eman nahi izan dizkio jaiak hain aberats egin dituzten elkarte, kuadrila, txosna lan talde, banda, dantza taldeak, abesbatzak baita udalerriko elkarteei eta herritarrei ere. *“Herria ekintzez eta kirolez blai utzi duzue. Zuen lan, ilusio eta konpromisorik gabe, ezinezkoa izango litzateke halako jaiak bizitzea. Ez ditugu ahaztu ere ArteOn abesbatza, aurtengo pregoilariak, eta Baldarrak kuadrilla, txupinazoko protagonistak, berezitasun berezia emategatik jaietako bederatzi egun hauei”,* azpimarratu du Respaldizak.

Ezaugarri propioak dituzten ekitaldiek, hala nola Baserritarren Eguna eta Odoloste Eguna, Laudioko nortasuna eta sustraiak indartu dituzte; tokiko produktuei ikusgarritasuna emanez eta berezko usaina eta xarma itzuliz. *“Laudioko kaleetan egunotan bizi izan dugun poza eta emozioa gure herriaren indarraren erakusgarri izan da. Guztion artean eraiki ditugu jai hauek, guztion artean zaindu behar dugu gure herria. Harrotasunez eta eskertuta bukatzen ditugu aurtengo Sanroke jaiak”* amaitu du Ainize Gastaka alkateak.

Erasorik gabeko jai gune askeak

Abuztuaren 15etik 17ra bitartean, jaien lehen txanpan, gune morera 180 herritar inguru gerturatu ziren, eta ez ziren inolako eraso matxistarik jaso; giroa positiboa eta errespetuzkoa izan baitzen. Hala ere, hori ez da gertatu ez den seinale, baizik eta ez dela jakinarazi. Jaien bigarren txanpan aldiz, abuztuaren 25etik 28ra

bitartean, 230 herritar inguru hurbildu ziren udalak jarritako mahai informatibora (22:00etatik 01:00ak arte, gune hau Batzalarrin kalean egon zen, eta 01:00etatik 04:00etara, Aldai plazara mugitu zen txozna gunetik gertuago egoteko). Zoritxarrez, jaien bigarren asteburuan, txozna gunean gertatutako eraso eta jarrera matxistek errespetuzko jai giroa lainotu zuten. *"Gertaera hauek onartezinak dira eraiki nahi dugun Audio feminista batean; jaietako gune eta espazio fisiko guztiak seguruak izan behar dira herritar ororentzat. "Laudion ez ditugu eraso eta jarrera matxistak onartuko eta horretan tinko lanean jarraituko dugu", amaitu du Gastakak.*